

EUSKARAREN EGUNA 2017

TOLOSALDEAN EUSKARAK 365 EGUN!!

Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna, egun seinalatua. Eskualde mailan ekintza bateratua egingo dugu aurten. Herri guztien artean, **“TOLOSALDEAN EUSKARAK 365 EGUN!!”** leloa osatuko dugu, herri bakoitzak esaldi horren letra bat irudikatuz.

Beraz, **abenduaren 3an, igandea, herriko plazan** elkartuko gara **11:30ean**. Hemen duzue prestatu dugun **EGITARAUA**:

11:30 Herritarrak plazara biltzea.

12:00 Mosaikoa osatzea: Ataria Irratiak Tolosaldea osoan egingo du txalaparta deia. Iruratarrok **“R”** hizkia osatuko dugu plazaren erdian. Mosaikoa koloretako kartulinak gainean ditugula egingo dugu, beraz, **pertsona bakoitzak edozein kolore edo tamainako kartulina bat ekarri beharko du.**

Euskararen Eguneko adierazpena irakurriko dugu.

12:15 Mosaikoari argazkia atera.

Hizki potolo-potoloa irudikatu behar dugu! Zatoz gurekin ospatzera festa-egun hau!

*izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.*

Mixel Aire, Xalbador

HERRIA GORPUTZA, HIZKUNTZA BIHOTZA